

## JANOSCH 5 PUZZLE

### JANOSCHen irudiak

Kartoi gogorra. 17,5 x 23 cm. 12 orrialde. 10 €.

**Janosch: 5 puzzles - 5 quebracabezas - 5 puzzle**  
(gaztelaniaz - galegoz - katalaneraz - euskaraz)  
ISBN 978-84-8464-251-0. Libros para soñar.


**Janosch: os puzzles do tigrezinho e do ursinho**  
(portugesez)  
ISBN 978-989-749-065-1. Livros para sonhar.

Janoschen irudi zoragarriak jolaserako gai bihurtu dira izenburu eleanitzeko lan bisual honetan, oraindik irakurtzen ez dakiten haurrek piezak nahastu eta irudiak berriro osa ditzaten. Kartoizko liburu honetako orrialde bikoitz bakoitzean jatorrizko diseinua agertzen da alde batean, eta haren ondoan, berriz, material bereko egitura soil bat agertzen da, desmuntagarria, marrazkia marko baten barruan irudikatzen duena.

Hartz eta Tigre, eta beti haiekin batera izaten den tigre-ahatea dira bost puzzle hauen protagonistak, baita beste pertsonaia batzuk ere, hala nola untxi postaria, erbi gimnasta edota igel lotia. Egoera bakoitza erraz antzeman daitezkeen tokietan gertatzen da: etxean, mendian edota ibaian.

Tigreak eta hartzak beren etxeko atea irekiko dizkigute eta eguneroko zenbait egoera haiekin konpartitzera gonbidatuko gaituzte: ibaian barrena baltsa batean mugituko gara, zirku-ariketak egingo ditugu eta, hainbesteko mugimenduaren ostean, atsedean hartuko dugu.

Akuarela hauen kolore bizi eta alaiak, freskotasuna eta dinamismoa ematen duten trazu irregularrak eta eszena bakoitzari umore-ukituak emateko Janoschek erabiltzen dituen ñabardurak dira argitalpen original honen bereizgarri artistikoak.



- **Gala:** jolas-liburua.
- **Gomendatutako adina:** oraindik irakurtzen ez dakiten haurrak, irakurtzen hasten ari direnak.
- **Alderdi azpimarragarriak:** esku-trebetasuna, ikusizko oroimena; haur literaturako autore klasikoa, *Zein polita den Panama!*, *Posta tigrearentzat*, *Altxor bat aurkituko dugu* eta *Neuk sendatuko zaitut, tigre ipuinen egilea*.

### Janosch

(Hindengurb, Alemania, 1931- egun Zabrze, Polonia)

Janosch Horst Ecker-en ezizena da. Izen artistiko hori hartu zuen bere lehen editoreak bultzaturik. Haurtzaro zail baten ondotik, gazterik hasi zen lanean, errementari eta sarraileri gisa. II. Mundu Gerraren ostean, bere familia Mendebaldeko Alemaniara joan zen, eta oihal-lantegi batean hasi zen lanean. 1953an Munichera joan zen, eta aldi batez Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen. Gero artista independente gisa hasi zen lanean, eta 1960an bere ibilbide artistiko eta literarioari hasiera eman zion liburua argitaratu zuen. Hirurehun lanetik gora ditu, 70 hizkuntzara itzuliak, eta sari ugari jaso ditu. Haurtzako liburuak, narratiba, antzezlanak eta animazio-filmak idatzi eta ilustratzen ditu.  
<http://www.janosch.de>

www. **Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com